

...eta

Kittu!

833 zkia.
2013-1-25



SAHARAN itxaropena pizten



KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

- Auzo-herriko zerbitzuak: azterketak eta laguntza
- Elkarlanean, garapenak, irakurketak...
- Zerbitzuaren erregulazioaren mantentzeak

AHOLKULARITZA

- Finantza
- Liberezia
- Kontabilitateak
- Asegurak

ZINEMAKO IRRIBARREAK

Zure ametsak egi bihurtzen ditugu



ODONTOLOGIA OROKORRA

ORTODONTZIA

Invisalign
Erkutuko mihi-ortodontzia ikusezina
Zeramika eta zirkonizko bracket oso estetikoa

PERIODONTZIA

Diagnosi digital periodontala
Análisi mikrobiologiko periodontal eta genetikoa
Periodontitis-tratamendua kirurgiank gabe
LASER diodoi
Mentua hortoietan

AHO-KIRURGIA

Ateratze zatak eta sustria-hondarrak
Azkenaginak ateratzea kirurgiarekin
Barneko hortzak ateratzea

INPLANTOLOGIA

Hézur eta hortzoi gabelarentzako tratamenduak
Hézur-birsortzea biomaterial bidez
Hortzoi-birsortzea
Inplantologia transjigmatikoa
Hortz finkoak egunean bertan inplanteekin

PROTESI FINKOA

Metalezko koroa libreak
Zirkonizko koroa punjak
CAD-CAM koroak (ordenagailur egindakoak)
Kerilik

MUGITU DAITEZKEEN PROTESIAK

Oklusioa eta ATM

OKLUSIOAREN DIAGNOSI DIGITALA

ZURIKETA LASER bidez saio bakarrean

ODONTOPIEDIATRIA (PADI)

ERRADIOLOGIA DIGITALA

SUDUR-LASAIGARRIA

MUTUA ETA ASEGURUAK

GLOBAL CARD, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL, FRATERNIDAD, CARREFOUR LIFE, IMA, AZKARAN, PREVISORA IBERIANA, SANTA LUCIA, AEGON/STONEBRIDGE, OCASO, AMANTASALUD, PADI...

ZERBITZU BERRIAN

ETXEBERREKO ORDUTEGIA

Asteleneroetik ostiralera:
08:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

IRAZABAL DENTAL 24 ORDUZ

24 orduz
GALDETU



GALDETU 2. txandako fitxa

Unibertitate erantzulezuetan
irakasleak gara:
Dipea duen zentroa gara.

ETXEZ-ETXEKO ARRETA-ZERBITZUA



Etxeke arreta:
Pazientea jaso
eta etxera itzuli



IRAZABAL

clínica dental

Julian Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Promozio bereziak 2013ko martxoaren 15era arte, kupoi hau aurkeztuz

%20 Deskontua
hortz-
inplanteetan*

%10 Deskontua
larunbatetan
egindako
tratamenduetan

LASER bidezko zuriketa
Hortzetarako arkatz zuritzailua
Higienaa **525 €**
BESTELAKO PROMOZIOAK: GALDETU

*Sola hortz-inplanteentarako

ASTEAN ESANAK

“Edalontziak eta botilak edukiontzi berean bilduz gero, eskuz berezi beharko lirakeke, denak ezin baitira elkarrekin labe batean sartu eta botilak egiteko beira berria lortu. Beraz, iglu berdean botilak bai, edalontziak ez”
(MARIAN IRIARTE, KIMIKA IRAKASLEA)

“Jon Mirande lehenbiziko moderno da euskal literaturan: eskandalua sortu zuen. Lehenbiziko aldiz aipatzen ditu erotika, lesbianak, mozkorrak. Sekulako zentsuran bizitu da Euskal Herria, apezek dena kontrolatu baitzuten”
(TXOMIN PEILLEN, IDAZLEA)

“Euskal Herrian martxan dagoen hiru eredueta hezkuntza sistema bat ezarriko bagenu Katalunian, gizartea zatikatzeko arriskua izango genuke. Horregatik, nik ez nuke halako sistema bat nahiko Kataluniarentzat”
(VICENÇ VILLATORO, IDAZLEA)

“Tarteka hanka sartu izan dut. Amets Txurrukaren kasuan, konturatu naiz gauzak ez nituela behar bezala egin, baina kirol irizpideak soilik hartu nituen kontuan bera eta Belasko taldetik kanpo uzteko. Modua aldatuko nuke”
(IGOR GIEZ, GALDEANO, MANAGERRA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

JAIOZTATIK.- Berezkoa. “Hónek katalanok, izan be, jaiotzatik dira tratulari aproposak”.

JAIOZTATIK EKARRI.- Jaiotzez izan. Berez izan. “Jaiotzatik dakar herrena”. Gaztelera zko ‘de nacimiento’.

JAIXAK.- Jai nagusia. Gehienetan pluralean, nahiz eta egun bakarreko jaiak izan. “Eibarko jaixak, Sanjuanak eta Sanandresak”.

eskutitzak

SAIATU GAITEZEN GURE ESKU DAGOENA EGITEN

Aurreko asteko ...eta kitto!-n, Mikel Larreategik idatzi zuen zutabearen, bete betean jo zuen gaur egun puri purian dagoen gaia. Gutxienez bi puntu garrantzitsuetan bat nator berarekin. Zaborren gaia guztiz politizatu dutela (edo dugula) eta birziklatzea derrigorrezkoa izan behar lukeela.

Betidanik guk okupatzen dugun Lurra bakarra da, eta bere baliabideak mugatuak. Daramagun abiadurarekin, laster bukatuko dira baliabide horiek, eta ondoren etorriko direnei ez dakit zer laga behar diegun. Gure ardura da guk aurkitu genuen bezala edo hobeto lagatzea ondorengoei. Hori lortzeko, lurrari zer kentzen diogun kontu haundiz begiratu behar genuke. Ez dugu ba pentsatuko erabiltzen dugun guztia zerutik euria bezala jausten dela?

Nire ustez, egin beharreko lehen gauza gutxiago kontsumitzea izango litzateke. Eta, ondoren, erabiltzen dugun hori ahalik eta gehien birziklatu, lurrari gutxiago kendu behar izateko. Gaur egun birziklatze hori gero eta errazago jartzen digute: baditugu kolore guztiak edukiontziak. Baina, gure ahaleginik gabe, denak alferrik daude.

Eibartarrak beti izan dute gauzak ondo egiteko fama. Beraz, lortu dezagun ditugun edukiontziekin behar adineko birziklatze neurrietara iritea. Beste

herri batzuetan, atez ateko sistema erabiliz, ehuneko 75 edo 80 lortzen omen dute. Ba saiatu gaitetzen Eibarren, ditugun edukiontziekin, hori edo gehiago birziklatzea bidaltzea.

Baina kontu bat argi edukiz: ez badugu lortzen, atez atekoa edo beste sistemaren bat inposatu beharko dela. Beti ere irizpide tekniko, ekonomiko eta ingurumenari lotutakoak erabiliz.

Errazena gure hondakin guztiak errauskailu edo zabortegi batera bidaltzea litzateke, baina inork ez du bere etxe ondoan horrelakorik nahi. Eta, gainera, erretzen denarekin ezinezkoa da gauza berririk sortzea eta, ondorioz, berriro lurrari bere baliabide gero eta eskasagoak ateratzen jarraitu beharko genioke gure “beharrak” asetzeko. Buruz jokatu dezagun, Ama Lurra eta ondorengoen eskertuko digute-eta.

Mikeleri kontutxo bat ere esan nahi nioke: ez da politikaria izan beharrik irtenbideak bilatzeko. Edozeini dela ere, ideia on bat baldin badu, hondakinak hobeto kudeatzea ahalbidetuko duena, ez dut uste inon bere partehartzea ukatuko diotenik. Azken finean, herritar guztiok gara politikariak geure erara.

ANTTON ALDALUR IRIGOIEN



ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskeraren Elkartea. **HELBIERA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Edurne Uzkudun
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETTA)

kutxa gizarte ekintza



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria



Karmelo Urdangarin

IK4-Tekniker-en instalazio berriak

Teknikerrek instalazio berriak ditu; ia hirukoiztu egiten dute Otaola hiribidean zuten eraikina, eta horrek 22 milioi euro inguruko inbertsioa ekarri du. Aldi berean Gipuzkoako Parke Teknologikoan integratu da, Eibarko Parke Teknologikoa izena hartuz. Hala ere, gertutasunarengatik, Azitaingo industrialdearen parte gisa hartuko da. Lehenik eta behin azpimarratuko nuke eibartarrak soilik direla tamaina horretako proiektu bati aurre egiteko gauza; proiektu horrek Erisonoko mendi-mazela nabarmen aldatuko du, eta horrek dakartzan arriskuak -enpresa zein hirigintzarekin lotutakoak- bere gain hartu beharko ditu, eta hori guztia horrelako proiektu baten finantziatorako oinarritzko diru-laguntzei zuzenean eragiten dien krisi-sasoi honetan. Zaila da azaltzea nola XX. mendeko hirurogeigarren hamarkadako Armeria Eskolaren laborategia Euskal Autonomi Erkidegoko teknologia-zentrorik garrantzitsuenean bihurtu den. Urteetan egindako lan onak soilik argitu dezake hain eboluzio arrakastatsua. Gipuzkoako Parke Teknologikoan integratzeak bailaratik haratago doazen planteamendu zabalagoen mende jartzea badakar ere, Tekniker-ek gertuago duenaren zerbitzura egoten jarraituko du, eta orain arte gertatu den moduan, kanpo-harremanekin uztartu beharko du, gure zentro teknologikoak ekoizten jarraituko duen zerbitzu-salmentara iritsi arte.




Ekitaldixa amaitzerakuan, famelixa-argazkixa egin zan saritutako guztiekin. SILBIA HERNANDEZ

Armerixa Eskoliaren Mendeurrenari agur

Eguaztenian agurtu eben 2012xan zihar urte osuan hamaika ekitaldirekin ospatu dan Armerixa Eskoliaren sorreraren mendeurrena, eskolako areto nagusixak hartu eban ekitaldixan. Iñigo Urkullu lehendakarixarekin, Martin Garitano ahaldun nagusixarekin eta Miguel de los Toyos alkatiarekin batera 300 bat lagun batu ziran ekitaldixan. Eguaztenian egindakua-ekin eskolako irakasle guztieri errekonozimendua egin nahi izan zetsen Ignacio Aldalur irakasliari emondako oroigarrixaren bidez eta, horrekin batera, eskerrak emon zetsazen diruz

lagundu detsen 100 bat enpreseri, bereziki iaz 50 urte bete zittuan Soraluze S.Coop enpresari. Goruntz abesbatzak "Agur Jaunak" kantautu agurtu eben areto barruko ekitaldixa, baiña eskolatik urten aurretik egunian bertan inaugurau eben "Eskuadra Zaharra" museua bisitatzeo aukeria izan eben gonbidatuak. Ekitaldixa hasi aurretik, Alfako bihargiñak eskola pareko parkian protesta baketsua egiñ eben eta Urkullu lehendakarixari euren egoeriarren barri emoten daberen gutuna helaraztia lortu eben.

Odol-emailien erauzketak ambulategira



Gaurtik hasitta Gipuzkoako odol-emotailien alkartekuak aste birik behiñ egitten dittuen odol-etaratzia ambulategixan egingo dira (2. pisuan) eta ez oiñ arte egitten eben moduan, alkartiak Pagaegi kalia dakan egoitzan. Neguan lokalian egitten eban hotzak eragin dau toki-aldaketia. Izan be, Pagaegi kaleko egoitzan ez dago kafekaziñorik eta odola emotera juaten ziranak hotza pasatzen eben. Gaiñera, ambulatixua herrixaren erdialdian egotian, alkarteko arduradunak jende

gehixago erakartzia espero dabe. Azken urtian odol-emotailien kopuruak %12 egin dau behera: 2011n 935 odol-etaratze egin zittuen eta 2012xan 822 baiño ez. Odola emon ahal izateko bete biharreko baldintzak 18 urtetik gorakua izatia eta gitxienez 50 kilo pisatzia dira. Alkarteko ordezkariak jendia odola emotera animau nahi dabe, "oso gauza erraza eta segurua dalako eta horri esker medikuntza arluan duguazzen premiña askori aurre egittia posible dalako".

Debegesak 22 enpresa sortzen lagundu dau

Atzo goizian aurkeztutako datuen arabera, 2012xan 22 enpresa sortzen lagundu zeban Debegesak eta, horri esker, 33 lanpostu barri be eratu ziran. Enpresak sortu zittuenen artian gehixenak 25 eta 35 urte bittarteko gazte langabetuak zirala be argittu eben. Debegesako Enpresa Barrixen Sorriandako Zerbitzuak iaz 172 konsulta jaso zittuan, 2011an baiño % 12'41 gehixago. Halanda be, zerbitzu horren bittartez sortutako enpresa barrixak 2011n baiño 4 gitxiago izan ziran iaz. Sortu barri dittuen enpresa gehixenak, 12 hain zuzen be Eibarren dagoz eta gaiñontzekuak inguruko herrixetan eratu dittue (4 Elgoibarren, 3 Mutrikun eta bat Deban). Enpresa baktixerako egindako inbertsiñua, bestalde, batatz beste 30.000 euruen bueltan ibilli da.



Ubitxako luperixan ez zan zauriturik egon. BELEN ULAZIA

Luperixa bi eragin ditu eurixak

Aurreko astian, eguaztenetik eguenera bitarteko goizaldian luperixa bi gertatu ziran gurian: 04.30ak aldera Matsarixako basarribidietako batian gertatu zan lehelengo luperixia eta Zerbitzu saillari bidia garbitzeko abisua emon zetsen; bigarrena 06.20xak aldian gertatu zan Ubitxa kaleko 19-21-23

zenbakixen atzealdian. Pasau zanaren barri jaso eta zerbitzu teknikueri abisua emon zetsen, inguruan eguazen kaltiak ikustera juan eta hórren gaiñeko baloraziñua egi- tteko. Zorionez, ez batian ez bestian ez zan iñor zauritu eta ez zan bestelako kalterik gertatu.

autuan

AURREKONTUAK

Aurtengo udal aurrekontuak, iazkuarekin konparauta %6ko jai- tsieria eukiko dau: 28 millioi eu- ro ingurukua izango da presu- puestua, iazkuak baiño bi millioi gitxiagorekin. Hortik urtian zihar egitteko inbersiñuak 2'8 millioi hartuko dabe.

MOGEL ISASI BHI


Atzo eguardixan jaso eban Mogel Isasi BHI ikastetxiak "Eskola Ja- sangarrixaren Ziurtagirixa" da- kala aditzera emoten daben ban- deria. Miguel de los Toyos alka- tiak emondako bereizgarrixa "es- kola jasangarrixa eta ingurume- narekin konprometidutakua" iza- tiagaitek eskuratu dau ikaste- txiak eta ekitaldixan, alkatiare- kin batera, Juan Angel Balbás Debegesako zuzendari-gerentia- ki eta Jon Garaizabal ikastetxe- ko zuzendarixak hartu eben parte.

INMIGRAZIO PLANA

Abenduan presentau eben "Inmi- grazioa eta Aniztasuna Kudeatze- ko II. Tokiko Plana (2012-2016)" Eibarko Udalaren webgunian (www.eibar.net) nahi dabenak konsultatzeko moduan dago.

27.541 biztanle dagoz Eibarren

Eibarrek 27.541 biztanle ditu, 2013ko urtarrillaren 1ian Udal Idazkari- tza sailleko Estadistika atalak emondako datuen arabera. Hórretatik 14.180 andrazkuak dira eta, beraz, gaiñontzeko 13.361ak gizonak. Jato- rrixari begiratzen badetsagu, 1.898 lagun atzerritarrak dira, 65 herrialde diferentietan jaixotakuak hain zuzen be. Eibarrek 2011. urtian 27.523 biztanle zittuan eta hórretatik 1.599 ziran atzerrixan sortutakuak.



EGOITZA NAGUSIA
Bilaberritza 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Erusketak labeg

Egokibon (lugar pagonan)

Partikular: eratu eta desagur erretu zerbitzuak

Koizki - Eskola - Urteurrenko ekitaldi

Euskal Herri osoko ospitaleen bertan zerbitzu

Nazioa eta Nazioarteko trataldiak

Mugica Ehorzketa

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

BARRIO autobusak eta mikrobusak

www.autocaresbarrio.es
info@autocaresbarrio.es

MOBILA: 659 87 89 89
943 17 15 01 / Aldapa, 6 (ERMUA)

asteko

220

datua

bihargiñ izan dira azken urtian gure herrian ERE edo enplegu erregulaziorako espedientia jaso dabenak. Debabarrenari begira, Debak izan ditu gehixen (546) eta Elgoibarrek be (392) Eibarrek baiño gehixago izan ditue. Soraluzen 65-ek bakarrik.



Eibarri buruzko dokumentala

Oiñ urtebete "Pyrenees Pirineos" France 3 telebista kanalerako dokumentala grabatzen jardun eben gure herrian eta grabaziñotik ekoizti daben dokumentala hamendik egun gitxira, otsaillaren 3an estrenauko dabe. "Eibar, ville des fusils et de la mécanique de précision" ("Eibar, armen eta prezisiño-mekanikaren hirixa") izenburuko ikusentzunezkuak 7 miñutu pasatoko iraupena dauka.

Eibar, Alzheimerrarekiko Hiri Solidarioa

Afagi Gipuzkoako alzheimerrudunen eta bestelako demenziadunen famelixa eta lagunen alkartiak Eibarko Udalari bere deklaraziñuarekin bat egitteko eskaeria egiñ eta honek astelehenian aho batez onartzia erabagi eban Bozeramaillien Batzarrarian. Holan, "Alzheimerrarekiko Hiri Solidarioa" izatia erabagitta, Udalak "arazo larri horren gaiñian dakan kezka" aditzera emon nahi dau.



Asier Cuevasi omenaldixa txotx-ean


Iruki sagardotegixak programa berezixa preparau dau gaur arratsalderako, Eibarren txotxa zabaltzeko. Ekitaldixak 19.00etan hasiko dira, herriko erdialdian Agirrebena anai-arrebak alaittuko daben kalejirarekin. 19.30xetan herri kirolak hasiko dira: Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolarixak eta Dioni Kortina harrijasotzailliak erakustaldixa egingo dabe, Iruki sagardotegi parian dagan parkian. Sagardo-dastaketia, barriz, 20.00etan hasiko da, Egoitz Zapiraiñen eskutik eta afarixa eta Asier Cuevas korrikalarixari omenaldixa, barriz, 21.00-



ak aldera hastia dago aurreikusitta. Jarraixan, erromerixia egingo dabe han bertan, Agirrebena anai-arrebekin.

Mus Txapelketako kanporaketia

Euskal Herriko V. Mus Txapelketia martxan dago eta Eibarko kanporaketia domekan, hillaren 27xan, jokatu da 16.00etatik aurrera Klub Deportibuan. Eibarko txapeldunak Gipuzkuako kanporaketan jardun biharko dabe ondoren (otsaillaren 23an, Seguran) eta Euskal Herri maillako finala, barriz, Agurrañen (Araban) izango da 2013ko martxuaren 9xan. Parte hartu nahi daben bikotiak Deporrekotabernan emon biharko dau izena eta bikote bakotxak 20 euro pagau biharko ditte izena emoteko momentuan bertan. Horretarako epia kanporaketia jokatzen hasi baiño ordubete lehenago amaittuko da. Informaziño gehixago nahi dabenak 943207044 telefonora deitzeko aukeria dauka edo, bestela, www.euskalherrikomusfederazioa.org webgunera jo leike.



FELIX GARATE AZKARATE (1. URTEURRENA: 2012-I-27)

Bere aldeko urteurren MEZA egingo da zapatuan, hilaren 26an, 19.00etan hasita, San Andres elizan.





JOSE Mª VAQUERO (sendagilea)

“Kolesterolak eragin zuzena du arrisku kardio-baskularretan”

Datorren eguaztenian, hilaren 30ean, kolesterolari eta arrisku kardio-baskularri buruzko hitzaldia eskainiko du Jose Mª Vaquero Mendaroko barne-medikuntzako eta Eibarko Osasun Zentroko sendagileak. Azken zentro horrek, bere 25. urteurreneko ekitaldien artean, hilero eskaintzen dituen hitzaldietakoa da hain zabaldua dauden gaitz horiei buruzkoa eta Vaquero saiatuko da “ahal denik eta ulerterrazen egiten azalpen hori”.

- Zer adierazten ahaleginduko zara Portalean eskainiko duzun hitzaldian?

Azalpen xumea egin nahiko nuke, edozeinek ulertzeko modukoa. Zentratuta kolesterol gehiegi izateak dakartzan arrisku faktoreez; batez ere, garunean, bihotzean, hanketan eta giltzurrunetan.

- Gero eta gehiago entzuten bada ere, jendea nahiko sentsibilizatuta dago gai horretaz?

Inoiz baino informazio gehiago dago eta jendeak, orokorrean, kontuan hartzen ditu aholkuak eta ahalegintzen da kolesterol gutxiako elikadurari eusten. Gero eta gehiago dira dietari jarraitzen dietenak eta pilulak hartzen dituztenak.

- Kolesterol gutxitzeko produktak zenbateraino dira mesedegarriak?

Kalterik ez dute egingo; izate-

kotan, ondo... baina ez dakigu zein neurritan, ez baitago datu iragartzen dizkiguten emaitzak ziurtatzen dizkigutenik.

- Alde handia dago gizonezkoen eta emakumezkoen artean kolesterolari dagokionez?

Ez hainbeste. Emakumezkoen kasuan kopurua baxuagoa da orokorrean, estrogenoaren babesa dutelako. Baina, menopausiaren ondoren, 65 urtetik aurrera, kolesterol kopuruak paretatzen joaten dira.

- Neska-mutikoen kasuan ere tratatu beharrekoa izango da?

Bai. Hor, gainera, lehenago tratatzea komeni da eta balore txikiagoekin, arriskua berdina baita. Diabetesa ere tartean izan daiteke horrelako kasuetan.

- Gizen egotearekin lotu daiteke kolesterol?

Ez zuzenean, baina bai dagoela arriskua diabetikoa eta hi-

pertentsoa izateko, lodiek koipe tronkular gehiago dutelako eta horrek metabolismoaren aldaketa ekarri dezakeelako. Gizenak, egia esateko, kolesterol izateko boletoa erosten ditu.

- Arrisku kardio-baskularri begira, zein kopurutik aurrera komeni da neurriak hartzea?

Arrisku hori kalkulatzeko taula batzuk baditugu eta, kolesterol txarra 160tik pasatzen denean, tratamenduarekin hasia komeni da; 240tik pasatzen bada, ordua da dietarekin hasi eta bizitza osasuntsuari ekiteko; 280tik aurrera, bestalde, tratamendu farmakologikoa erabiliko dugu. Hori bai, gaixoa hipertentsoa edo diabetikoa bada, lehenago hasia hobe.

- Orokorrean, zer gomendatuko zenioke jendeari kolesterolari aurre egiteko?

Bizitza osasuntsua eramatea,

pisua kontrolatzea, ariketa fisikoa egitea astea 2/3 aldiz eta dieta mediterranea jarraitzea. Hori bai, alkohola eta tabakoa baztertzea.

- Kolesterolaren aurkako pilulak emaitza ziurtatzen dute?

Estatinak dira gehien erabiltzen direnak, botika erreginak guretako eta oso ondo funtzionatzen dutenak. Guk deitzen dugun “7ko erregelarekin” profil lipidikoa aldatuko diogu gaixolari eta, berak bizitza berbera eginez, kolesterol tasa jaistea lortuko dugu.

- Gaixotasuna jaisten doan da turik badituzue?

Azkenak 2004ak dira eta egia da, kolesterolak minik ematen ez duenez, jendea erlaxatu egiten dela. Sentsazioa dut emakumeen kasuan gehiago arduratzen direla. Sintomak izan arte, jendea ez da arduratzen.

DOLORES NARBAIZA ANSOLA

2013ko urtarrilaren 13an hil zen, 93 urterekin

FAMILIAREN IZENEAN, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



1975ian Madrilgo gobernuak Maroko eta Mauritaniaren artian banatu eban Mendebaldeko Sahara. Urte bereko urrixan Marokok "Martxa berdia" dalakua abiarazi eban. Holan hasi zan Maroko eta Mauritaniaren inbasiño militarra eta, horrek eraginda, saharar askok hanka egin bihar izan eben. Frente Polisariuak Marokoren okupaziñuari aurre egin zetsan eta herritarren ihesaldixa antolatziarekin batera, errefuxiatuendako kanpamenduak sortu zittuen Aljerian, Tindufeko basamortuan. Harrezkero sahararrak sakabanatuta bizi dira, oso egoera latzian, eta euren bizimodua are okerragua litzake, duda barik, mundu maillako hainbat erakundek eskintzen detsen laguntasuna euki ezian.



ITXAROPENAK karabana itxuria dauka SAHARAN

Laguntasunaren zati bat "Sahararen aldeko IX. Euskal Karabana: Piztu Itxaropena" dalakurekin batera ai-

llegauko jakue errefuxiaueri. Otsailla aldian urtengo dau karabaniak, Alikanteko portuan ontziratu eta kanpamenduetaraiño ai-

llegatzeko. Karabaniak, itxaropena ez eze, errefuxiatuendako premiña-premiñazkuak diran gauzak be eruango detsez: jatekuak (arroza, pasta, azukria, lekaliak, atuna eta sardiñak olixotan) eta konpresak, bestiak beste. Karabaniak eruango dittuan hórrek guztiak egunotan batzen dihardue Euskal Herrikohainbat lekutan, hillaren amaiera arte martxan egongo dan kanpaiñan.

Jatekuak batzeko kanpaiñia

Eibarren horretan dihardue oin dala urte eta erdi inguru jaixo zan Eibar-Sahara alkartekuak. Bertako kidia dan Marian Irciok esan deskun moduan, "alkartia sortu baiño lehenago be, 2005. urtiar geroztik janarixa batzen jarduten genduan. Nik kanpamenduetako neska bat euki neban etxian eta orduan ekin netsan Saharara



Elikadurarekin lotutako gabezixak gaixotasunak eragitten dittue.

ANGEL GALLASTEGI ARANBURU "Triki"

I. urteurrena – (1942-III-15 / 2012-I-25)

*Egunsentiak gaua bezela / Udaberriak negua
Urteurrena etorri zaigu / Gu laga gintuzula
Zutaz ez gogoratzea / Ez litzateke justua
Bihotzetikan bidaltzen dizugu / Gure besarkada estua (bis)*

URTEMEZA urtarrilaren 27an, domekan, egingo da eguerdiko 12.00etan, Elgetako elizan.



bidaltzeko laguntasuna batziari, hasieran bakarrik ikastolan eta sosiguz-sosiguz, jende gehiago alkatzen jua giñan neurrian, janarixa batzeko tokixak be ugartzten jua ziran eta gaur egunian Eibar, Elgoibar eta Ermuko ixa supermerkau guztietan, ikastetxietan eta beste toki batzuetan biltzen dittugu jendiak Saharara

bidaltzeko emoten dittuanak. Udalak be laguntzen desku, gauzak jaso eta Bilboraiño eruatiaz arduratzen dira. Baiña alkartia osatuta edozertarako indar haundixagua eukiko genduala pentsau genduan eta horregaittik eratu genduan. Gaur egunian dozena bat lagunak osatzen dogu Eibar-Sahara alkartia".

JAMILA DAMBAR, SAHARARRA:

"Nere herrixak bardin sufritzen dihardu 1975az geroztik"

- *Nolatan aillegau zara gure artera?*

Geria hasi zanian nere famelixia zaittuta geratu zan eta ni gurasuengandik aparte, beste senide batzukin kanpamenduetan bizitzen egon nintzan, 2000. urtian handik alde egitteko aukeria euki neban arte. Izan be, kanpamenduetan bizi diran gehixenak moduan neu be gaixorik neguan, gultzurrun-kalkuluak nittuan eta, Andaluziako famelixa baten eskintzari esker, bertara sendatzera juateko aukeria euki neban. Bisaua lortzeko ahalegiñetan hasi nintzan jarraixan eta, Kanarietan neba bat nekala aprobetxauta, bertan 12 urte emon dittut, oin dala pare bat hillebete, han biharrik ez egualako famelixarekin Eibarreraño etorri naizenera arte.

- *Zelakua da kanpamenduetako bizimodua?*

Eskerrak emon nahi detsadaz euskal herritareri, Saharari eskintzen detsen laguntasunarengaittik. Izan be, gaur egunian su-etena egon arren egoeria oso eskasa dalako oindiok be. Han dagan jendiaren premiñak gero eta haundixaguak dira, lehen baiño bizimodu eskaxagua dake. Jendiak elikagai-gabezixa ikaragarrixak daka eta hortik sortzen diran gaixotasunak sendatzeko medikamenduak be hartzen ditue. Gaiñera, parte batek okupauta segitzen dau. Bertara bisitan juaten garan bakotxian gitxienez pare bat ordu emoten dittugu aeroportuan, mugitzeko traba mordua ipintzen deskuez sahararrak izatiagaittik. Badagoz ikasi ezin dittugun karrerak; ikasten daben jendiari biharra etxetik urrun emoten detse eta holan gu sakabanatzia lortzen dabe; eta gazterixia alperrik galtzeko haxixa sartu dabe. 1975az geroztik nere herrixak bizi daben sufrimenduan ez da aldaketarik egon.

- *Zuk, gaiñera, egoera benetan dramatikua bizi izan dozu, ezta?*

Nere neba gaztiena, Said Dambar, ziberleku batera urten zan eta bueltan tiroz hill eben polizia marroixak 2010eko abenduaren 22xan El Aaiún-en. Gurasuen etxera jua ziran, hankasartzia izan zala esatera eta famelixako beste kidiendako biharra eskintzera, baiña aittak ez eban ezer hartu eta bialdu egin zittuan. 17 hillebetian hillotza ospitaleko gorputegixan euki eben. Kasua Genevaraiño eruan genduan. Gure salaketiak lortutako oihartzunari esker, sahararrek bizi dogun zapalkuntzaren kontrako borrokaren sinbolo bihurtu da.




Kanpamenduko bizimodua oso gogorra da eta oiñarrizko gauzen premiñia dake.

Herritarren eskuzabaltasuna

Oin momentuan bizi dogun egoera ekonomikuak holako kanpaiñeri mesederik ez detsala egingo pentsauko dabe askok, baiña aurreko urtietan jasotakua oiñarri modura hartuta, oiñ arte ez dabe holako aldaketa haundirik igerri: "Harrittuta gagoz jendiaren erantzunarekin. Kanpaiña oindiok ez da amaittu, hillaren 31ra arte janarixa eta beste produktuak emoteko aukeria eukiko dau jendiak, baiña oiñ arte batutakua ez da aurreko urtietan batutakua baiño gitxiago. Eta botikak be laguntasun haundixa eskintzen dihardue, oso toki gitxitan eta gaiñera garesti saltzen diran helduendako ojaliak eta kanpamenduetako dispensarixuetan banatzeko medikamenduak emoten".

Hortik aparte, baten batek karabania osatuko daben bigarren eskuko kamioiak erosteko eta permisua-eta pagatzeko dirua emon nahi badau, Euskadiko Kutxako 3035 0080 94 0800054177 kontu korrontian donaziñua egitteko aukeria daka. Kanpamenduetan itxaropena pizteko orduan laguntza guztia ondo etorriko da, duda barik.



JUAN (2011-XII-5) eta **FELISA** (2012-I-29)
ZUBIAURRE ARRIZABALAGA

I. urteurren MEZA:
hilaren 26an, zapatuan, 19.00etan,
San Andres parrokiari



Deustuko unibertsitatean Komunikazioa ikasten diharduen eibartarrak bost hilabete eman ditu Amerikako Estatu Batuetan (AEBn), Erasmus beka batekin. Virginian, Richmond-eko unibertsitatean egon da ikasten. Etxera bueltan den 21 urteko gazteak bere esperientzia nolakoa izan den azaldu digu.

- Zelan sortu zitzaizun Richmond-era joateko aukera?

Betidanik asko gustatu zaizkit AEBk, 15 urterekin egonda nengoen eta han ikastea aukera ederra zela pentsatu nuen. Ingeles titulua lortu eta berehala egin nuen eskaera. Onartuta zegoela jakin eta zelako poza! Beste ikaskide batekin batera abuztuan joan nintzen, lehenengo San Frantziskora eta handik Richmond-era. Lehenengo astean atzerritik joandako ikasleak elkar ezagutu eta unibertsitateak nola funtzionatzen zuen ikusi genuen. Lehenengo parranda ere orduan egin genuen, hori ere Erasmusaren parte da.

- Han topatutakoa zuk espero zenuena izan zen?

Jendeari buruz, denetatik dago. Batzuk klaseekin laguntzeko prest daude eta horren konpetitiboak izanda ez nuen horrelakorik espero. Badakite ondo pasatzen, baina lanarekin arduratsuak dira. Atentzioa asko deitu zigun "The honor code" edo ohore kodea: pelikuletan moduan, ailegatu eta zer egin zitekeen eta zer ez zioen liburutxo bat eman eta horri buruzko azterketa ere egin ziguten. Denok dakizkigun gauzak dira (ez kopiatu, ez lapurtu...), baina eurak konprometitu egiten dira; azterke-

ta bat irakasle barik egin genuen eta inork ez zituen begiak azterketatik jaso! Bestela, gure antzerakoak dira.

- Hauteskunde kanpainak han harrapatu zintuen. Zelako giroa zegoen?

Kanpaina barrutik bizitza oso emozionantea izan zen. Gainera, horrekin lotutako irakasgai bat hartu genuen, prentsak hauteskundeetan betetzen duen papera aztertzeke. Obama mitina ematera etorri zen eta zur eta lur geratu ginen: 13.00etan hasi behar zen, baina hara joateko 08.00etan esnatu ginen. Demaseko jendetzen zegoen, denak Obamarren ikurrekin eta denbora osoan "forward" (bere eslogana) oihuka. Kontzertu baten itxura zuen, merchandising-erako postu eta guzti! Estatu Batuen himnoa jarri eta denek eskumako eskua bihotz gainean ipinita kantatu zuten. Obama benetan karismatikoa topatu nuen, asko poztu nintzen Obamak irabaztean.

- Eta zer moduz unibertsitatean ikasten?

Hasieran gogorra izan zen, baina bigarren asterako dena hobeto joaten hasi zen. Han emandako denbora guztiz aberasgarria izan da. Agian egunen batean bueltan joango naiz, han bizitzeko.



Andrea García Zulueta
(ERASMUS BEKADUNA AEB-N)

"Emozionantea izan zen hautes-kanpaina bertan bizitzea"

aldatze

www.aldatze.org

Udal Artxiboaren laguntzarekin

Sei urtetan %50
biztanle gehiago



Amuategi Batalloia Azaitango frentian. Fotografian, bestiak beste: Tomas "Txepetxa", Ortiz de Zarate "Txikito", Unzetabarrenetxea, Izagirre, Felix Elkoroiribe, Markina, Agustin Etxeberria eta Garmendia.
EIBARKO UDAL ARTXIBOA. CASTRILLO-ORTUOSTE FONDOA.

XX. mendearen bueltan

Oñi 100 urteko Sanjuanetan izan zan ekitaldi bat jendiaren kuriosidadia piztu zebana: abioneta batek herrixan egin zittuan erakustaldixak. 2.000 pezeta ordaindu zetsen horregaittik pilotuari, bi epetan ordaintzekuak. Udalak dirua jasotzeko, enpresa, kasino, kafe eta tabernetara jotziaz aparte (ohikua zana), alarde musikalerako sarrerak salgai jari zittuan, 0'50 eta 0'25 zentimotan. Hona hamen zelan jarraitu zan ikuskizuna orduko periodikuetan.

1913-VI-14

Gaur izan da gurian Marius Tercé abiadore ausarta, Jaixetako Komisiñuarekin Sanjuanetan gure herrixan hainbat hegaldi egitteko kontratua siñatzeko. Kontratuan diñuanez, Tercék 24an arratsaldian egingo dau hegaldixa, zezen korridia amaittu eta gero; 25ian goizian eta arratsaldian, musika alardiaren eta korridiaren ja-

rraixan; eta 29xan, San Pedro egunian, eguerdixan eskola jaixaren ondoren eta arratsaldian zezen-korridia amaittutakuan. Jendia ikuskizuna noiz hasiko desiatzen dago eta Jaixetako komisiñuak laudorixuak jaso dittu horregaittik. Hangarra pitxoi-tiradak berifikatzen diran tokixan montatuko da, zezen-plazaren onduan.

1913-VI-23

Gaur goizian, lehelengo trenian, heldu da gurera bixar, korridia amaittutakuan, Marius Tercék pilotatuko daben aeroplanua, azken egunotan Donostian egindako paregabeko hegaldixak eta gero. Eta arratsaldian heldu

dira, automobilez, Tercé abiadoria eta bere mekanikuak. Bihar latza izan-go da hegan egittia, baiña ez da txikixagua izan aparatua daguan estalpe-raiño heltzia, ehundaka neska-mutil jarraitu detse-eta bertaraiño.

1913-VI-25

Heldu zan jendiak hainbeste itxaroten zeban hegaldixaren ordua, jendiak esperientzia ikusteko egokixak ziran puntu guztiak hartuta. Abiadoriak makiña prestau eta aieratu egin zan, jendia txundituta lagata. Hegaldixa, laburra izan arren, bikaiña izan zan, eta penia izan zan ezbiharran amaitzia.. Lurra hartziak zittuan zailtasunak medio, Tercék oso goixan gerarazi zeban motorra eta, lurra hartzian, bortitzegi jo zeban. Aparatuak txilinu-buelta osua emon zeban, pilotua azpitan geratuz. Berehala juan zan jen-

dia laguntzera, istripua larrixa izango zalakuan; baiña Tercé bere kabuz urten eban aeroplanuaren azpittik, eskuarekin ezer ez zekala adierazteko kiñua egiñaz. Berak ez zeban miñik hartu, baiña aparatua hondatuta geratu zan, helizia eta ipurdialdia apurtuta. Jendiak bero-bero txalotu zeban. Oin pilotuak aberixia zenbategia dan ikusi bihar dau eta, gaurko konpontzeko gauzia bada, hegaldi ikusgarrixaguak eta zoriotsuaguak eskinduko deskuz.

1913-VI-27

Marius Tercék konpondu dittu aeroplanuaren aberixak, motorra probau dau eta seguro dago dana ondo juango dala. Horrek esan nahi dau gure zeruetan ikusiko dogula barrero be. Domekako esperientziarekin poz-pozik dago eta baita jendiaren erantzunarekin. Oinguan hegaldi bi egingo

dittu: lehelengua, motzagua; eta bigarrena, ikustekua, ordu erdittik gorakua, 1.800 edo 2.000 metroko altueratik gorakua. Pilotuak esandakua betetzen bada, aho-zabalik geratuko gara danok. Espero daigun bere nahixa betetzia.

1913-VI-28

Jendia ikusmin berezixarekin dago zain bixar emongo dan abiaziño ikuskizuna. Hegaldixak goizeko 11.00etatik 12.00xetara eta arratsaldeko 18.00etatik 19.00etara egingo dira. Aparatua, aberixak konponduta, estal-

pera eruan da eta egindako proba guztiak bikaiñ urten dabe. Tercék fili-granak egitteko asmua daka eta, haiñ animoso dago, 2.500 metrotik gora igotzeko asmua dakala.

XX. mende hasierako egoera ezin da gaur egungoarekin konparatu eta ezta gaur ditugun arazoekin.

Gerra hasi zenetik, Eibarko populazioa %40etik gora igo da. Errealitate horrek arazoak sortu ditu eta, ondorioz, oso gela gutxi ditugu herrian; hainbestearaino heldu da larritasun hori, etxea aurkitu ezinik, prestatuta zeuden hainbat ezkontza bertan behera laga behar izan dituztela. Ideia bat partekatu nahiko nuke: zergatik ez du Udalak hutsik dituen hainbat departamentu alokatzen? Badi-ra sorospen-etxea, ambulategi antituberkuloso eta musika akademiarako zuzenduta zeuden hainbat espazio erabiltzen ez direnak. Proiektuak izatetik aurrera jo ez dutenez, gela horiek erabili ahal izango lirateke gutxienez eta ez, orain moduan, bertan arratoiak euren bizitza egiteko.

Joaquin Orbea udaltzain-buruak, beti bezain atsegin, pasatu dizkidan datuei erreparatu, Eibarrek gaur egun 15.000 biztanle ditu: euretatik, 2.500 hirigunetik kanpo bizi dira eta beste 12.500 barruan. Datu horiek 1910ekoekin konparatu, populazioa 5.000 lagunetan handitu dela ikusiko dugu

1916ko iraila

KALEFAKZIO GEHIGARRIA

Kanpoko hotzaren aurrian...



...ETXEAN BERO-BERO

2013ko
urtarrila

fonta.amana@gmail.com



AMAÑA
FONTANERIA

BAINUEN INSTALAZIOA ■ SUKALDEA, GASA ETA KALEFAKZIOA ■
BAINUEN DISEINUA ORDENADOREZ ■ AIRE EGOKITUA

T. Anitua 12 Tel. 943 201 930

Gasa. Kalefakzioa. Klimatizazioa. Eguzki Energia



Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Faxa. 943 254 929

Fontanería Jardines

Jardiñeta, 11 B fontaneriajardines@euskalnet.net




MUGICA
ITURGINTZA

Tfnoa. 943 20 10 30
Faxa. 943 20 72 24

Helbide
Egigurenarren, 18
berria

Hoztu edo berotu egiten duen teilatua

Teknologia mailako berrikuntzak eten-barik sortzen dira arlo ezberdinetan eta erakuntza ez dago joera horretatik kanpora: Amerikako Estatu Batuetako zientzialariek teilatuetan erabiltzeko estaldura adimenduna sortu dute: estaldura horrek eguzki-izpiak erakarri edo aldaratzen ditu, etxearen barrualdea berotzeko edo hozteko, urte sasoi bakoitzean gehien komeni zaigun tenperatura lortzeko bidea zabaldua.

Estaldura "fast-food" edo janari lasterreko jatetxeetan erabiltzen duten olioarekin fabrikatuta dago eta, asmatu duten ikertzaileen arabera, termometro bat "irakurtzeko" gauza da. Gainera, eguzkiaren beroa erakarri edo aldaratzen du mo-



du automatikoan, kanpoko tenperatura maila jakin batera ailegatzen deanean, tokiko klimaren arabera.

Estatu Batuetako Kimika Elkartearen (ACS) urteroko 239. bilerako lehen egunean aurkeztutako asma-

kizuna edozein teilatura egokitzen da. Orain arte, teilatu mota biren artean aukeratu zitekeen: bata, eguzki-argia aldaratzen duena, udan aire egokitua-ren faktura murriztu eta neguan berogailuarena handitzen duten kolore argiko teilek osatutakoa; eta bestea, eguzki-izpiak erakartzen dituen, neguan berogailuaren gastua murriztu, baina udan teilatua kiskaltzen duten teila ilunek osatutakoa.

Estaldura fabrikatzeko prozesuan, sukaldean erabiltzen den olioia tratatu egiten dute eta horren ondoren plastikoaren moduan sendotzen den polimero likidoa sortzen da. Produktua usaingabea, toxikotasunik gabea eta suaren aurkakoa da eta edozein tonutan (argia edo iluna) fabrikatu dezakete.

VENTANAS IZARRAITZ

- Leihoak
- Toldoak
- Pertsianak
- Garajeetako atekak

Thermotec
La ventana de PVC de nueva generación
www.thermotec.es

ETXEAN EGINDA

Bidebarrieta, 48 Bizkaia etorb., 10
943 25 60 26 faxa: 943 17 08 23 943 17 14 52
EIBAR ventanas-izarraitz@hotmail.com ERMUA

SARGORI

BEROKUNTZAK S.L.

**GAS ETA KALEFAKZIO INSTALAZIOA
ITURGINTZA / MANTENIMENDUA
AIRE EGOKITUA / ATERATZE ETA AIREZTAPENA**

San Agustin, 2-4 - J lokala
Tel. 943 53 02 01 Faxe. 943 53 15 03

ELEKTIBAR, S.L.U.

ELEKTRIZITATEA

**PROIEKTUAK
ARGIZTAPENA
INSTALAZIOAK**

- * Denetariko **ERREFORMAK**
- * **TELEKOMUNIKAZIOAK**
- * **ATE AUTOMATIKOAK**
- * **BERO URDINA**

JOSU BENGOA

Indalezio Ojanguren 2, behea, 27 EIBAR

☎ 943 70 05 42 Faxe: 943 53 02 31

Aurrekontuak konpromezurik gabe

METALEZKO ERAIKUNTZAK ALUMINIOZKO ETA PVC-KO AROZTEGIA

1984an sortua. Aluminio, PVC eta aluminio-egurrezko leihoen fabrikazioa. Lan mota guztiak honako esparruetan: burdin eta altzairu herdoilgaitza, atekak, barandak, makinendako babesak, tximeneak, nabarrak, etb.

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67
Faxe: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
Urkizu, 26
Tfnoak: 943 12 74 01

ulmar
S.L.

metalezko eraikuntzak

info@ulmar.net www.ulmar.net

Kalefakzioari etekinik handiena atera

Etxea berotzeko orduan kalefakzio instalakuntza egokia izateak berebiziko garrantzia dauka, baina ez ahaztu instalakuntza modu egokian erabiltzeak duen garrantzia. Izan ere, horren arabera tenperatura egokiaz gozatzeko aukera izateaz gain, gure poltsikotik irten beharko den diru-kopuruan ere modu garrantzitsuan eragina izango du kalefakzioa erabiltzeko gure moduak. Horregatik, hotza pasatu barik ahalik eta gehien aurrezteko hainbat aholku emango dizkizugu jarraian:

- Gure helburua lortzeko, kalefakzio-sistemaren tenperatura erregulatzeko gailua izatea oinarri-oinarrizko baldintza da. Kalefakzioa noiz piztu eta noiz itzali behar den aginduko duen gailuak guk aukeratu nahi dugun tenperatura lortzen eta horri eusten ere lagunduko digu.
- Neguan etxe barruan eroso ego-



teko tenperatura ideala 20°C-koa dela diote adituek. Askok, gainera, logeletan tenperatura hori 3 eta 5 °C bitartean murriztea egokitzen josten dute. 23°C-tik aurrera, berriz, tenperatura igotzen den gradu bakoitzeko energia-kontsumoak %7 egiten du gora modu automatikoa. Horregatik gomendatzen dute 21°C-ak kalean hotz handia dagoen egunetan baino ez gainditzea.

- Etxetik kanpora ordu asko igarotzen direnean, gutxieneko tenperatura jakin bati eusten dion tenperatura "ekonomikoa" 15°C-tan kokatzen dute.

Jarraitzeko oso errazak diren aholku hauei esker, eta Kontsumitzaileen Elkarteek egindako ikerketetan oinarrituz, etxe batean urteko egiten den kalefakzio-gastua bataz beste 550 eurokoa baldin bada, kalefakzioa egoki erabilia 110 euro aurrezteko aukera daukagu.



IGA S.L. KRISTALDEGIAK

TAILER ETA BULEGOAK: Legarre, 15 -EIBAR-
Tfnoa. 943 70 25 41 eta 943 70 24 95
Faxa. 943 70 24 95 Mobila. 670 21 46 25

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:
Birjiñape, 1 behea -EIBAR-
Tfnoa. 943 20 20 40

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:
Zeharkalea, 12 -ERMUA-
Tfnoa. 943 17 69 56



ACHA Kristaldegia

CLIMALITekin
isolatzaile onena
lortuko duzu
akristalamendu
bikoitzaz

TAILERRA
Errekatxu, 3

☎ eta faxa: 943 20 39 03 / c.acha@euskaltel.net

ERAKUSKETA
Arikixaneko Zubian

Barrena, 26 -behea
tel. 943 121 642 / fax. 943 204 307
ec@electricidadcuadra.com

ELECTRICIDAD


CUADRA EG

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOAK
INDUSTRIA MANTENIMENDUA
PROIEKTUAK
ERREFORMAK
KALEFAKZIOA

VENTANAS ONA[®] LEIHOAK

- AROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA.
- KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA.

Bidebarrieta, 28 - behea
Tel. eta Faxa: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 669 531 358
ventanas.ona@gmail.com www.ventanasona.com



Alfonbrek ere berotu egiten dute

Berez beroa ematen ez duten arren, alfonbra eta moketak oso lagungarriak dira hotzaren sentsazioari aurre egiteko. Izan ere, beroari eusten diote eta, gainera, soinu, hotz eta hautsaren isolatzaile bikainak ere badira. Etxe-barruko dekorazioa edozein dela ere, ondo emango duen alfonbraren bat aurkitzea ez zaigu horren zaila egingo gaur egunean merkatuan dagoen aukera zabalarekin. Gelak apaintzeaz gain, askoz ere praktikoagoak diren beste funtzio batzuk ere badituzte eta, eskaintzen dituzten abantailak aztertu eta gero, baietz etxeko toki batzuetan ipintzera animatu!

Hasteko, zorua isolatu egiten dute eta, horri esker, tenperatura egonkorriari eusten dion azalera epela zapaltzen dugu. Horrela, konturatu barik, energia-gastua murriztea lortuko dugu eta, horrenbesteko hotzik sentituko ez dugunez, etxeko klimatizazioa ere askoz ere leunagoa izango da. Horrekin batera, alfonbra batek gelari giro atsegina ematen dio eta gelako soinuak arindu egiten ditu. Eta hori gutxi balitz, alfonbra eta mokekek aspiragailua erabilita oso erraz garbitu daitezkeen partikulak euren zuntzen artean harrapatzen dituzte.

Alfonbrak beti berriaren itxura izateko behar ditugun produktuak merkeak eta oso errez lortzeko modukoak dira: talkoa, bikarbonatoa eta ozpina, besterik ez da behar.



Bikarbonatoak hezetasuna eta usainak xurgatzeko ahalmen ikaragarria dauka eta, beraz, ager daitezkeen orbanak kentzeko orduan oso erabilgarria izan daiteke. Ohikoak baino orban sendoagoak kentzeko, horra ura eta talko-hautsak edo bi-

karbonatua nahastuta lortzen den beste errezeta bat: hasteko eskuila batekin orbanari eragin, ondoren erdia ozpin eta erdia ura duen nahasketa isuri, talkoarekin lehortu eta, amaitzeko, xurgatu. Emaitzak harritu egingo zaitu benetan.

FABRIKA ETA ERAKUSKETA
 Urtia Industrialdea- C1 pabilioia
 ERMUA - BIZKAIA
 Tfnoa: 943 170 184 Faxa: 943 170 571
 e-maila: emankor@euskalnet.net
www.emankor.com


ERAGINKORTASUN ENERGETIKO ALTUKO ITXITURAK

ALUMINIO AROTZERIA

LEIHO ISOLATZAILEAK



BEIRATEAK



FATXADA ISOLATZAILEAK

ISOLAMENDU TERMIKOA



FATXADA AIREZTATUAK



Pilota partidua amaitzen ez bada, apostuekin zer?

Hori galdetu digu batek baino gehiagok aurreko domekako jaialdian gertatutakoren ondoren. Erantzunaren bila Aspe pilota enpresako apostuetaiko sekzioko arduradunarekin izan gara eta Santi Agirrek berak ere (Ermukoa eta pilotaria izandakoa) ez du halakorik gogoratzen: “Niretzat lehenengo aldia da jaialdi berrean partidua bertan behera geratzen direla. Negozio kaskarra izan zen guretzat, egindako lanarengatik ezer gutxi ateratu baikenuen. Hori bai, aurretik oso ondo aritu ginen lanean, mugimendu handia baitzegoen apostuetan”.

Jaialdiko partidua nagusian, binakako txapelketakoa zenez horko puntua eta garaipena erretiratu ez zirentzat izan zen, baina apostu kontuetan ez da horrela jokatzeko irabazten zihuan bikotearentzat da garaipena. Markagailua, dena dela, 16-15 zegoen partidua bertan behera laga behar izan zutenean Xalax izandako lesioarengatik eta, hori dela-eta, galdu zein irabazi zutenek jokatuakoko %14koarekin geratu ziren (hortik dio Agirrek domekakoan korredoreek ez zutela negozio handirik egin). Jaialdiko lehen partiduan, bestalde, kopuru hori %57ra iritsi zen, partidua bertan behera geratu zenean 19-15 zihozelako. Zelan likidatzen diren horrelako neurketak? Banaketa proporzional edo prorateo bati segika. Erabili beharreko formula honakoa da: aurkariaren arteko tantuen aldea bider 100 eta hortik ateratako emaitza zatikatu egiten da galtzen doanari 22ra ailegatzeko falta zaizkion tantuen artean. Hau da, aurreko domekako lehen partiduan 19-15 zihozenez, $19-15=4 / 4 \times 100=400$. Galtzen zihozenez 22ra heltzeko, 7 tanto falta zitzaizkenez, hurrengo operazioa honakoa da: $400:7=57$. Hortik lehen azaldutako zenbakia. Bigarren partiduan, oster, zenbaki kaskarragoa ateratzen da bikotearen arteko aldea tanto bakarrekoa zelako.



Santi Agirre (eskua jasota) frontoian lanean.


Apostuak jaitsi egin dira

Agirrek dioenez, “asko jaitsi da 2007tik hona apostuen kontua: %80-90. Lehen beste alaitasun bat zegoen jokatzekoan; gaur egun ez dago halakorik”. Aspen zortzi korredore edo artekari daude: “Astelenan eta 1. mailako beste frontoietan beti izaten gara zortzirik; bestelako frontoietan erdiak, lau edo bost. Nik Mikel Berasaluzerekin eta Lukasekin egiten dut lan”. Asegarcen, pilota profesionaleko beste enpresan, hiru artekari dituzte.

Apostuak edo trabesak egiterakoan, jokatuakokoaren %16 da artekariak jasotzen dutena: “%9 enpresarentzat da eta guretzat beste %7. Badira hamasei bat urte horrela dihardugula; lehen, %16 horretatik, %5 jasotzen genuen guk; baina diruarekin jokatzeko hartzen ditugun arriskuak kontuan hartuta -izan daitezkeen okerrak eta akordio horretara iritsi ginen”. Jokatzekoan ez dago gutxienezko kopururik eta ezta gehienekorik eta gero eta gehiago dira apostuak telefonoz egiten dutenak: “Azken aldian oso ondo dihardugu lanean, batez ere binakako txapelketa hasi denetik. Bikoteak parekatuta daude eta horrek zaletasuna berpizten du eta apostuak egitera animatu. Gazteak ere hasi dira jokatzeko eta dirua eskuan dutela etortzen zaizkigu... Apostueteen eragina izango da!”.

Ez da hain zaila

Frontoira lehen aldiz doan batendako zaila izan da kioke ulertzea trabesak joakoa. Baina ez da hainbestetako. Artekariak zuzentzen dute joko hori eta eurak arduratzen dira apostuak lotzen, bi ikusleen arteko apostuak gurutzatzen. Jendea botatzen dieten hutsik dauden tenis pilotetan trabesak joaten dira, egindako apostua paper batean idatzita. Lan horrengatik artekariak korretajea kobratzen dute: apostuaren %16 gaur egun. Partiduaren martxaren arabera, jokatuak diren momioak ere aldatzen joango dira eta, kantatzerakoan, esaterako, 100 urdin badio, hori hartu nahi duenak 100 euro jokatuak ditu gorrien alde. Baina artekariak 100 70era badio, horrek esan nahi du behetik 70 emango duen baten bila dabilela, 100 irabazteko aukera eskainiz. Alderantziz, 50 100era kantatzen badu, horrek esan nahi du baduela dirua behetik eskaintzen duenik eta goitik eskainiko duenaren bila dabilela, hau da, ea nor dagoen 100 emateko prest 50 jasotzeko elkartruketa. Eta partidua bertan behera geratzen bada eta biak berdinduta badaude? Apostu guztiak bertan behera geratuko litrateke: dena alperriko lana



BENITO MENDEZ MUÑOS

(I. URTEURRENA: 2012-I-24)

**ZURE irribarre eta samurtasuna
betirako izango dira GURE BIHOTZETAN.
TXARO, MADA ETA AMAIA**





Erregeen Saria jokatu zen Kalamuako instalazioetan

Ohikoa denez, aurreko eguenean Errege Magoen saria izan zen jokoan Kalamua judo klubaren instalazioetan, bertara gonbidatutako Soraluzeko Ukaldi Klubeko partaideekin eta Eibarko klubekoekin. Judokek zazpi mailatan lehiatu zuten, adinari eta pisuari jarraituz eta honakoek eraman zituzten urrezko dominak etxera: Lucia Arrillaga, Iker Antolín, Koldo estenaga, Markel Simón, Asier Núñez, Asier Sebastian eta Markel Garitainandia.

Waterpolo taldeak gehiago merezi izan zuen Portugaleten

Bigarren partidua berdindu dute jarraian Urbat-Urkotronikoek, baina oraingoan beste zapore bat lagata, ez orain dela astebetekoa: Hernanikoan segada jarri zieten; oraingoan, berriz, waterpoloan egin zuten. Eibartarrak aurretik joan ziren ia neur-

keta osoan, batez ere Basterrikak eta Mandiolak egindako jokoari esker, baina minutu baten faltan Nauticako bizkaitarrek 6nako berdinketa eskuratu zuten eta horrekin konformatu behar (4-6 emaitzarekin hasi zuten azken laurdena).

Eski irteera otsailaren 2/3an


LHko 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzat eta 18 urtetik gorakoentzat izango da Eibarko Klub Deportiboak aurtengo denboraldian antolatzen duen bigarren eski irteera hori. Otsailaren 2tik 3ra Somportera joango dira iraupen eskia egiteko eta Astunera alpinoko jarduteko; helduek Villa Anayet hotelean ostatu hartuko duten moduan, gazteek Tritón aterpetxean geratuko dira. Prezioa 62 eurokoa da helduen kasuan (bidaia eta ostatuaren pensio erdian sartzen dira hor) eta neska-muti-

len kasuan 75 euro ordaindu beharko dute (bidaia, ostatuaren pensio erdian, forfai eta alokairua). Izena emateko, interesatuak Deporrek bulegotik pasatu behar dira eguazten edo eguenean, 19.30etatik 20.30-etara; informazio gehiagorako, eski@deporeibar helbidean.



González-Zubieta vs Olaizola II.a-Ibai Zabala

Pilotako binakako txapelketa presente izango da Astelenan domekan jokatuko den jaialdian. Horko partidua nagusian, Aspeko González-Zubieta eta Asegarceko Olaizola II.a-Ibai



Zabala bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Aurretik, Apezetxea-Larrinaga eta Mendizabal III.a-Merino izango dira nor baino nor eta, amaitzeko, Olazabal-Arruti eta Gorka-Cecilio bikoteen artekoa jokatuko da.



Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS

Bellatokia Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

Bulegoa:
Eibarko, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra
©943 82 15 39 - www.funeuskadi.com

Funeuskadi
El mejor servicio funerario

• Eibar • Donostia • Bilbao • Barakaldo • Leioa • Getxo • Sestao • Portugalete • Santurtzi • Galdakao • Sopupe • Espinosa de los Monteros.

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelerratik euskarara,
eta ingelesez euskarara.

ZERBITZUA
elkarte@etakitto.com

Radio Eibar

CADENA

SER

104,0 FM

Izadi

LORADENDA

– Lora eta landare natural eta lehorrak
– Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Concepto Egile: itzuli bat partidurik galdu gabe

Denboraldi bikaina dihardu egiten Debabarrena areto-fobal-leko lehen taldeak. Horrela, partidurik galdu gabe sailkapeneko goi-goian dago Concepto Egile eta, 2. B mailan gol gehien sartu dituen taldea izateaz gain, gutxien jaso duena ere bada. Azken jardunaldian, sailkapeneko hirugarren postuan sailkatutako kantxan jokaturiko partiduan,



4-7 nagusitu ziren Egilekoak, Alex, Buitre eta Raulen bina golekin. Emaizta horrekin, Debabarrenak sei puntuko alde kentzen dio Zierbanari eta bederatzi Colo-Colo eta pinsequeri.

Eibar Rugbikoaren garaipena liderraren etxean

Ezusteak ematen jarraitzen dute Eibar Rugbi Taldekoak eta, horrela, azken jardunaldian Sant Cugat liderrari nagusitu zitzaizkien Katalunian bertan. Azken emaitza 15-18koa izan zen eta goikaldeko multzo horri eusten

jarraitzen diote Txema Isasaren mutilek eta, behin hasieran zuten mailari eusteko asmoa beteta, gozatzeko ordua heldu zaie. Gaizka Arrizabalagak, Max Vegak eta Igor Sendinok eskuratu zituzten eibartarren puntuak.



Domekan Barcelona Unibertsitari Club hartuko dute Unben eta aukera handiak dituzte beste garaipen bat lortzeko, kataluniarrek azken aurreko postuan baitaude, eibartarrendandik 23 puntura.

Max Vega jokaldia egiten.

berriak

EIBAR KE

Eibarrekin Tudelano hartuko du domeka arratsaldean Ipuruan, 17.00etan hasiko den neurketan. Nafarrak talde indartsua osatzen dute eta sailkapeneko 6. postuan daude, eibartarrendandik hamar puntura. Zaragoza B-rekin Ipuruan izandako porrota ahaztu eta ordura arteko bi-detik jarraitzea komeni zaie Garitanoren mutilei goiko postuetan jarraitzeko.

FOBALLA

Eibartarrek foball taldearentzat asteburu bikaina izan da azkena: talde nagusiak Mutrikuri 2-1 (Azpiazu eta Peñaren golak) irabazi zion Unben Preferente mailako partiduan eta Erregional 1. mailakoa 0-2 gailendu zitzaion Bergarari. Preferente mailako taldeak gora egin du azken asteotan lortutako emaitzekin eta bigarren taldea bere multzoko 2. postura igo da orain gutxi hasitako Kopa torneoan.



La Salle
Eibar

Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra
(biak barne)

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA (D eredu)
DBH (D eredu)

La Salle Isasi eta Azitain Ikastetxeetan

AURREMATRIKULA ZABALIK
2013-2014 IKASTURTEA

Tfnoak. 943 202 133 / 943 121 698

www.lasalleeibar.com



LEO HARLEM (umoregilea)



"Iraintzen ez duen umorea egiten dut"

Leonardo González Félix (Matarrosa de Sil, León, 1962) dago Leo Harlem gaitzizenez ezagutzen dugun umoregilearen atzean. Lagunen adarjotzeak bere bizitza goitiki behera aldatu eta El Club de la Comedia saioko 3. monologo lehiaketaren finaleraino eramán zuen. Bihar saio bikoitzean, 20.30etan eta 22.30etan Coliseoan berarekin barre egiteko aukera izango du publikoak.

- Nolatan hasi zinen umorezko monologoak kontatzen?

Lagun batek orain dela 10 urte adarra jotzearekin batera hasi zen dena. Egun batean hala esan zidan: "Hemen aktuatzetan ipiniko zaitut". Nik txantxetan zebilela pentsatu nuen. Kontua da ikuskizuna iragartzeko oso kartel polita egin zuela eta, behin hori ikusita, ez zegoen atzera bueltarik. Ikuskizuna amaitu eta jendea aurrera jarraitzeko animoak ematen hasi zen, El Club de la Comedia-ra bidetara bidaltzeko... Finaleraino ailegatu arte fase ezberdinak pasatzen joan nintzen eta honetan dihardut oraindik ere.

- Zailagoa egiten da jendeari barrea eragitea eszenatokira bestelako errekurtsu barik, norbera bakarrik irten behar denean?

Testuak onak baldin badira, ez da besterik behar. Batzuetan karakterizazioak ez dira ondo irizten eta pertsonajeak derrigortzea ere ez da ona izaten, azken batean ez zarelako zu zeu. Sinesgarritasuna oinarri-oinarizkoa da.

- Gaiak aukeratzeko orduan zertan inspiratzen zara?

Jakina, gidoia edo testua funtsezkoa da. Inspirazioa, berriz, edozein unetan etor liteke, baina testuak asko landu behar dira eszenatokira irten aurretik. Gero, gauzak probatzen eta zorrotzen joan behar... Ez da lan erraza izaten. Aukeratzetan dituzten gaiak egunerokotasunean aurkitzen ditugunak izaten dira, edozeini gertatzen zaizkigun gauzak izaten dira eta, beraz, jende gehienarentzat ezagunak diren kontuez jarduten dut. Gaiak jokoa ematea da kontua. Ez da gauza bera fisika kuantikoaz edo taberna eta jatekoaz berba egitea.

- Zein da zure arrakastaren sekretua? Zergatik egiten du horrenbeste barre jendeak kontatzen dituzun gauzeekin?

Denoi inoiz gertatu zaizkigun gauzen inguruan berba egiten dudalako, denontzat ezagunak diren gauzei jarduten dudalako. Jendeak "hori neri gertatu zait" esaten dit. Beste arrazoi bat, agian, politika eta erlijioa moduko gai polemikorik ikutzen ez dudala izan daiteke. Iraintzen ez duen umorea egiten dut.

- Ikuskizuna eskaintzen duzun tokiaren arabera publikoaren erantzuna ezberdina izaten da?

Jendeak toki guztietan barre asko egiten du, baina egia da iparraldean eta Euskal Herrian bereziki jendeak oso ondo erantzuten duela. Ikaragarriko umorea daukazue.




Eibarren ere, Danborrada

Aurreko domekan Danborradaren Kontzertua eskaini zuten Cielito Musika Bandak eta Usartza Txistulari Bandak Coliseoan, Eibarko Danborradako barrilek lagunduta. Urtero San Sebastian inguruan eskaintzen duten kontzertuan, Sarriegiren doinuekin batera, Eibarko Danborradako beste batzuk ere entzun eta abesteko aukera izan zen.



Ederto koko-jantzi tailerrean

Aurreko barixakuan primeran eman zuten arratsaldea koko-jantzi tailerrean joandako umeek. Gurasoak Berbetan ...eta kitto! Euskara Elkartearen programaren barruan antolatutako ekimena izan zen eta pare bat orduan umeek euren koko-jantziak egin zituzten eta horiek jantzita pozarren joan ziren.



Lagun Taldearen ikuskizun koloretsua

Aurreko zapatuan eskaini zuten Lagun Taldeak "Luces, cámara ¡¡¡Culebrón!!!" telenobela baten grabazioan oinarritutako izenburuko ikuskizun koloretsu eta arrakastatsua Hezkuntza Esparruan. Bigarren emankizuna bihar egingo dute 17.30etan. Sarrerak euro bat balio du.


Badatoz koko-dantzak

Otsailaren 2an, datorren asteko zapatuan ailegatuko zaizkigu koko-eskea eta koko-dantzak. Aurten Mandiola eta Gorosta aldean ibiliko dira goizean goizetik eta arratsaldean, berriz, 19.00etan anbulategi parean elkartuko dira koko-dantzari eta koko-marru guztiak, herri barruan kalejiran ibiltzeko. Iluntzeko kalejiran parte hartzea nahi duen guztiarentzat zabalik dago eta Kezka dantza taldekoek jende guztia animatu nahi dute. Gainera animatzen diren guztiarentzat entsegu irekia egin dute martitzen ho-



netan eta hurrengo martitzenean ere hala egingo dute (20.00etan Portalean, 3. pisuan).

"Bide Zabalak" erakusketa Portalean



Gaur arratsaldean hasi eta otsailaren 24ra arte "Bide Zabalak" izenburuko erakusketa hartuko du Portaleko erakusketa aretoak, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara. Erakusketak hamar artistaren lanaren bidez baliabide berrien erabilpenaren aniztasuna agerian laga nahi du eta horretarako Silvia Abella, Patxi Araujo, Maialen Arozena, Xabier Barrios, Izaskun Etxebarria, Xabier Idoate, Mariana Martín, Silvia Ruiz, Jabier Villarreal eta Augusto Zubiaga EHUko Arte Ederren Fakultateko artisten lanak aukeratu dituzte.

Napoka Iria gaur Coliseoan

Gaur 20.30etatik aurrera Miren Narbaizak eta Ander Mujikak osatutako Napoka Iriak kontzertua emango du Coliseoan (sarrerak 5 eurotan bertan salgai ordubete lehenago). Emanaldian Maite Arroitauregik txeloarekin eta Andoni Mujikak bajoarekin lagunduko die. Apirilean hurrengo lana grabatzen hasteko asmoa dute eta, horregatik, ez dute zuzeneko emanaldi askoz gehiago eskainiko, beraz aprobeztatzeko moduko aukera gaurkoa.



laburrak

EUSKAL BASERRIA

Datorren asteko eguaztenean, hirlaren 30ean "Txorixak galduta egozian" filmaren proiektzioa eta Josu Gil Eibarko baserritar gaztearen solasaldi musikatua hartuko ditu Donostiako Okendo Kultur Etxeak, 19.00etatik aurrera.

LIBURU ARRAKASTATSUAK

Juan San Martin liburutegian, iaz euskaraz gehien mailegatutako liburuak Kirmen Uriberen "Bilbao-New York-Bilbao", Joseba Sarrionandiaren "Moroak gara behelaino artean?" eta Iñaki Irasizabalen "Igelak benetan hiltzen dira" izan ziren.



EGUEN ZURI LEHIAKETA

Arrate Kultur Elkarteak XVI. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa antolatu du. Nahi duenak har dezake parte, Aratosteetako argazkiak aurkeztuta (egile bakoitzeko lau lan onartuko dituzte gehiezin). Entregatzeko azken eguna martxoaren 12a izango da, 21.00etan. Informazio gehiagorako arratekultu@gmail.com helbidera idatzi edo 943202299 telefonora deitu daiteke.



Tintalur
Kartutxo eta Toner Birziklaia eta Salmenta

Errebal, 12 - behea
Tel./Faxa: 943 531 809
tintalur@gmail.com www.tintalur.com




Larragest
INMOBILIARIA

AUKERA BIKAINA: Aparteko pisua salgai

- ERAIKIN IA BERRIA URKIZUN, parkerako bistekin eta dena kanpora begira / Ilogailua kalean bertan
- Egongela, 2 logela (armairu enpotratuekin)
- 2 bainu eta sukaldea (guztiz ekipatuta)

Prezio ezinhobea: **188.000 €** INFORMAZIOA: **690 61 07 15**



Ibarluzearen lanaren aurkezpena

Atzo aurkeztu zuten "Newtonen sagarretik esku-pilota kuantikora. Berrikuntza eta zientzia zabaltzen" Juan Luis Ibarluzearen liburua Armeria Eskolan. Lana Ego Ibarra batzordeak eman du argitara, "Eibarko Koadernuak" sailaren barruan. Lau formatutan editatu dute: alde batetik paperean, eta bestetik, PDF, mobi eta epub edizio digitaletan.



Muñoaren olerkien diskoa salgai


Ibon Muñoa presoak iaz argitara emandako "Ametsen txokoan bizi naiz" poema liburuko olerki batzuk musikatu eta bertsionatu dituzte Eibarko hainbat taldek, dagoeneko kalean dagoen diskoa grabatzeko: Eroa Nazan, Napoka Iria, Norman, Ekinocio, Josu Gil eta Mikel Arrieta musikariek hartu dute parte iazko udazkenean Legarreko lokaletan grabatu zen lanean eta, beraz, estilo ezberdinek bat egiten dute diskoan. CD-arekin batera abestien letrak eta Mikel Za-



rrabe presoaren koardoen irudiek osatu-tako liburuxkoa kalera-tutu dute. Diskoan dauden abestiak "Askatu barrura, barrutik mundura" (Mikel Arrieta), "Mundu gaizto batean II" (Norman), "Mundu gaizto batean I" (Eroa Nazan), "Zalantza" (Napoka Iria), "Mundu gaizto batean VIII" (Ekinocio) eta "Mundu gaizto batean III" (Mikel, Josu, Pulgi) dira eta eskualde osoan 5 eurotan salgai ipini dute, ohiko tokietan (Eibarren oraingoz Karrika eta Areto tabernetan eros daiteke).

"Hárek umiak" kalean ipinitako argazkiak martxoaren 3ra arte ikusgai

Aurreko asteko haizeak kalean ipinitako "gerrako umeen" argazkietako batzuk bota arren, oraindik zutik daudenak martxoaren 3ra arte ikusgai jarraituko dutela eman du aditzera Ego Ibarra batzordeak. Hamabi erretrato erraldoik iraun dute zutik: Jarkoveko umeena (Untzagako Jubilatutako Etxearen fatxadakoa), Torbio Etxebarria kalean dagoen Ingalaterrako etxearena (Spanish Children's Court, Bray Court) eta Kakalardo ondoan dagoen burdinezko horman dauden umeenak. Haizeak botatakoak, berriz, udal-letzeko arkupeetako laurak (abegi-herrialde bakoitzeko ume bana) eta "umeen" itzuleraren ikur legez Untzagako harmaila gainean zegoena dira. Bestalde, Ego Ibarra webgunean "Há-



rek umiak (Gerrako Eibarko umeak)" argazki-galeria 'ume' haietako beste askoren argazkiak jasotzen jarraitzeko gertu dagoela gogorarazi nahi diote jendeari.

Aratosteetarako kartela aukeratu dute

Martitzenean batu zen Aratosteak 2013 kartel lehiaketako epai-mahaia eta irabazlea Conxita Honorato Blázquez (Malgrat de Mar, Bartzelona) "Vístete de Carnaval" dela erabaki zuten. Umeetan, 11-14 urte bitartekoen mailan Afrika Santos Cid (11 urte) saritu dute "Festa" kartelarengatik eta 10 urtera artekoen mailan, berriz, Maitane Campos Fundazuri, "Pailazo zapatak" lanarengatik. Sari banaketa ekitaldia otsailaren 9an, Aratoste Zapatuan egingo da 13.30etan Untzagan (karpan).


MAXIMO ARGOITIA ARRIETA

III. urteurrena (2010eko urtarrilaren 26an hil zen)




*Beti izango zara
gure bihotzean*

ZURE FAMILIA




laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, NAHIA, haraiñegun zure lehelengo urtebetzia ospatu genduan-eta. Aitaxo, amatxo eta famelixaren partez.




Zorionak, ALBA, eguaztenian lau urte beteko dozelako. Laztan haundi bat aitaxo, amatxo eta famelixaren partez.




Zorionak, JUNE, gure sorgintxua, urte bi beteko dozuz-eta astelehenian. Muxu haundi bat etxeke guztien partez.




Zorionak, GORETTI, astelehenian 12 urte egin zenduaz-eta. Segi holan, irrifartsu eta alai. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, JURGEN, martitzenian urtetxo bat bete zenduan-eta. Patxo potolo bat aitta, ama eta famelixa guztiaren partez.




Zorionak, LANDER, astelehenian lau urte egingo dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, lgortxoren partez.




Zorionak, AINHIZE, etxeke sorgiñari, hillaren 13an urtebete egin zenduan-eta. Etxekuen partez.





Zorionak, GAIZKA Zubizarreta, hillaren 29xan bederatzzi urte egingo dozuz-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, JOSEBE, haraiñegun 13 urte egin zenduazelako. Famelixaren partez.




Zorionak gure etxeke printzesak diran HAIZEA eta PAULeri, hiru eta bi urte bete dozuez-eta. Aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, MIKEL (hillaren 14an) eta JULEN (gaur bertan), 11 urte bete dozuezelako. Etxekuen partez.



Zorionak, JORGE (hillaren 8xan urtiak bete zenduaz-eta) eta MARIA (gaur 13 egingo dozuz). Ondo-ondo ospatu. Famelixa guztiaren partez.



zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

25ean: 22.30

26an: 19.45, 22.30

27an: 20.00

28an: 20.30

"Una pistola en cada mano"

Zuzendaria: Cesc Gay



(2 ARETOAN)

25ean: 22.30

26an: 19.45, 22.30

27an: 20.00

28an: 20.30

"La hija de mi mejor amigo"

Zuzendaria: Julian Farino



(ANTZOKIAN)

25ean: 22.45

27an: 20.00

28an: 20.30

"Django desencadenado"

Zuzendaria: Quentin Tarantino



BARIXAKUA 25

INDIANOKUA

17.00. Joko olimpikoa. Indianokua gaztelekuan.

TXOTX-A

19.00. Kalejira erdialdean, Agirrebeña anai-arrebekin.

19.30. Herri kirolak: Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolariaren eta Dioni Kortina harrijasotzailearen erakustaldia, Iruki sagardotegi aldameneko parkean.

20.00. Sagardo-dastaketa, Egoitz Zapirainekin.

21.00. Afaria eta Asier Cuevas korrikalariari omenaldia. Jarraian, erromeria Agirrebeña anai-arrebekin. Iruki sagardotegian.

AZKEN OSTIRALA

19.30. Giza-katea. Untzagan.

KONTZERTUA

20.30. Napoka Iria. Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

ZAPATUA 26

BILERA

09.30. Sortu-ren eratzte prozesuko 3. batzarra. Kultun (aretoan).

INDIANOKUA

17.00. Erropa desfilea. Indianokua gaztelekuan.

LAGUN TALDEA

17.30. "Luces, cámara... ¡¡¡¡¡Culebrón!!!!" ikuskizuna, Lagun Taldearen eskutik. Sarrera: Euro bat. Hezkuntza Esparruan.

ZINEMA

17.30. "Bolt" filma. El Corte Inglés-ean.

ZAPATUKO IPUINA

18.00. "Basoko damaren ipuin sorta: euskal mitologia", Gurutz Garmendiaren eskutik. Umeen liburutegian.

UMORE-IKUSKIZUNA

20.30 eta 22.30. Leo Harlem umoregilearen aktuazioa. Coliseoan.

DOMEKA 27

MUS TXAPELKETA

16.00. Euskal Herriko V. Mus Txapelketako kanporaketa. Klub Deportiboan.

ASTELEHENA 28

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" (astronomia). Beheko Toki jubilatutik etxean.

MARTITZENA 29

IKASTEN

10.00. "Fernando Beorlegi. Gran maestro de pintores", M^a José Aranzastiren eskutik. Aulas Kutxak antolatuta. Armeria Eskolan.

EGUAZTENA 30

IKASTEN

11.00. Kafe-tertulia: aseguruak. Untzaga jubilatutik etxean.

GURASOAK MARTXAN

14.30. "Eduardo la afectividad y la sexualidad", Arrateko Andra Mari ikastetxean.

18.30. "Hablar y escuchar con eficacia", Ignazio Zuloaga institutuan.

HITZALDIA

19.30. "Colesterol y riesgo cardiovascular", José M^a Vaquero sendagilearen eskutik. Antolatzailea: Eibarko Medikuntza Zentrua. Sarrera librea. Portalean.

EGUENA 31

IKASTEN

10.00. "El intestino, nuestro segundo cerebro", Marisol Gisasolaren eskutik. Armeria Eskolan.

18.00. Joskintza tailerra. Portalean.

lehiaketak

✓ Otsailaren 16ra arte

INDUSTRIA-ARGAZKILARITZA DIGITAL LEHIAKETA.

Lanak aurkeztea eta informazioa: Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkartearen (Isasi, 36).

✓ Otsailaren 28ra arte

MARTXOAK 8-KO EMAKUME LANGILEAREN EGUNAren lan artistikoen lehiaketa. Lanak aurkeztea eta informazioa: Arrate Kultur Elkartearen bulegoan.

✓ Martxoaren 12ra arte

XVI. EGUEN ZURI ARGAZKI LEHIAKETA.

Lanak aurkeztea eta informazioa: Arrate Kultur Elkartearen (arratekultu@gmail.com edo 943-202299).

ikastaroak

✓ Urtarrilaren 30era arte

EMOZIOEN KUDEAKETA (Sendian programa).

Non eta noiz: Otsailak 5, 7, 12 eta 14an, 15.00etatik 17.30etara Portalean. Eskaerak eta informazioa: Pegoran.

HOROSKOPOA

ARIES

Aurreko astean ez zintuen haizeak eramango, ezta? Eskerrak! Ze bihartik aurrera gauzak oso ongi joango zaizkizu.

TAURUS

Jaten duzuna gehiago zaindu beharko zenuke, azken aldian edozer gauza jaten duzu-eta. Ondo elikatzea garrantzitsua da.

GEMINI

Noraezean ibili zara azken egunotan, erdi galduta. Lagun on bat behar duzu zure alboan, bidean ez galtzeko.

CANCER

Besteek egiten dutena oso erraza dela iruditzen zaizu. Egin itzazu zuk gauza horiek! Eskarmentu ederra hartuko duzu.

LEO

Galdera simple batek arazo asko konpon ditzake. Inor ez da gutxiago beste bati zerbait galdetzearren. Dena ezin da jakin.

VIRGO

Txoratuta lagako dizun pertsona bat ezagutuko duzu asteburuan. Berritoki ikusi ez arren, ezingo duzu burutik kendu.

LIBRA

Zalantza asko dituzunean, balantza batean jarri ondoren, erabaki. Ez eman ebazpena dena ondo baloratu aurretik.

SCORPIUS

Noizean behin ez dago gaizki minutu bat eseri eta zeure buruaz pentsatzea. Noiztik ez duzu horrelakorik egin?

SAGITTARIUS

Poz-pozik hasiko duzu datorren astea. Ez da gutxiagorako, momentu ederra bizi duzu-eta.: aukera paregabea benetan.

CAPRICORNIUS


Ez duzu zertan kezkatu, gaur egun dituzun arazotxo horiek berehala konponduko direlako. Zaindu zaitetz!

AQUARIUS

Susto ederra izango duzu astelehenean. Ez da oso larria izango, eskerrak! Baina ez duzu luzaroz ahaztuko.

PISCIS

Noiz ikasiko duzu jaten? Beti zikintzen zara. Adurretakoa ipini beharko duzu. Hori da garbigailua erabiltzea, hori!



telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia943 03 25 00
- Torrekoa943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiero eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.50etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.50etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiero. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiero.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Lanegun eta zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 16.40 eta 20.40.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

erakusketak

✓ **Urtarrilaren 31ra arte**


MARIA CAÑO. Argazkiak. Portalea tabernan.

MARIA AGIRRE. Argazkiak. Klub Deportiboan.

MARI SOL YABEN. Argazkiak. El Ambigú tabernan.

✓ **Otsailaren 24ra arte**

“**BIDE ZABALAK**” hamar artisten erakusketa. Portalean.



farmaziak

✓ **barixakua 25**

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

✓ **zapatua 26**

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

✓ **domeka 27**

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

✓ **astelehena 28**

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

✓ **martitzena 29**

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

✓ **eguztena 30**

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✓ **eguna 31**

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

✓ **barixakua 1**

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

hildakoak


- Felix Bouzas Ferreiro. 54 urte. 2013-I-2.
- Juan Araujo Formoso. 86 urte. 2013-I-10.
- Kontxi Sáez Aliende. 57 urte. 2013-I-17.
- Consuelo Fernández Rodríguez. 93 urte. 2013-I-18.
- Estanislao Sánchez Bernal. 79 urte. 2013-I-18.
- Angeles Maidagan López. 95 urte. 2013-I-18.
- Antonia Zigarán Elorza. 91 urte. 2013-I-19.
- Rosa Vila Airas. 65 urte. 2013-I-20.
- Mari López Morante. 90 urte. 2013-I-22.
- Jose Luis Balzola Suinaga. 62 urte. 2013-I-22.
- M^a Asunción González Varona. 81 urte. 2013-I-23.

jaiotakoak

- Garazi Zabalbeaskoa Etxaniz. 2013-I-5.
- Aner Miguel Sánchez. 2013-I-9.

				7			
8			4	5	6	9	
	7	4		8			
6		7	2				9
4				6	7		1
			8		3	4	
	3	2	9	5			6
			7				

SUDOKUA



AURREKOAREN EMATZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Babes ofizialeko pisua salgai Amanan. 70 m². Garajea eta trasteroarekin. Tel. 636-458967 eta 650-497992. Ricardo.

1.2. Errentan

– Senar-emazteek pisua hartu nahi dute Eibarren errentan. Tel. 686-739143.
– Egongela bilatzen dut errentan. Tel. 615-303314.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Seat 600 salgai. Egoera ezinhobean barutik zein kanpotik. Beti garajean gordeta. 4.000 euro negoziagarriak. leirehs@hotmail.com

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Lokala salgai Eibar erdialdean. Egoera onean. Tel. 671-258740.

3.2. Errentan

– Garajea alokagai Karmen kalean. Ixita. 18 m². Gauzak gordetzeko tokiarekin. Tel. 630-690317.
– Garaje itxia edo marraduna, trasteroarekin, hartuko nuke alokairuan. Errekatxu, Sansaburu edo Bista Eder inguruan. Tel. 636-322725.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-341238.
– Neska eskaintzen da goizez garbiketarako egiteko. Tel. 669-930282.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 638-884104.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 622-162798.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita erresidentzian ere. Geriatria-laguntzaile tituluarekin. Tel. 632-770872.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita erresidentzian ere. Tel. 662-012834.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 686-739143.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Informeak. Tel. 681-041297.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 698-367223.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 688-884287.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta lanegietan jarduteko. Geriatria-laguntzaile tituluarekin. Tel. 608-401590.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 645-366850.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako eta etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 654-349366.

– Neska eskaintzen da garbiketarako eta etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 633-843512.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 660-041099.

– Erizaina eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 610-733490.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta eskoletako lanak egiteko. Tel. 678-925568.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 676-078715.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 677-860971.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 648-946077.

– Neska euskalduna eskaintzen da ile-apaindegi batean lan egiteko. 11 urteko esperientzia. Tel. 610-096417.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 634-007292.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gaeuz ere. Tel. 680-121252.

– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 688-302653.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.

– Mutila eskaintzen da jatetxeetan jarduteko, garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta gidari moduan. Tel. 698-467862.

– Emakumea eskaintzen da sukaldelaguntzaile edo kamarera jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta tabernan jarduteko. Tel. 689-926022.

– Gizona eskaintzen da gidari moduan (nazionala, nazioartekoa eta bidaiariarekin). Esperientzia handia. Tel. 697-406210.

– Gizona eskaintzen da baserriak edo etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko ospitalean zein etxean. Tel. 688-812845.

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 645-557141.

– Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 608-376387.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 685-375377 eta 943-257605. Jacqueline.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-234524.

– Gizona eskaintzen da kamarero zein sukaldari laguntzaile jarduteko. Tel. 692-332871.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-052084.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 605-720298.

– Neska eskaintzen da arratsaldetan nagusiak paseatzera ateratzeko, etxeak garbitzeko eta umeak eskolara eramateko. Tel. 639-611454.

– Mutila eskaintzen da arratsaldetan nagusiak zaintzeko eta obretako laguntzaile moduan. Tel. 638-560617.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Euskarazko klaseak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketetarako prestaketa, profilak, HABE, EGA. Tel. 620-608065.

– Atzerriko hizkuntzan diplomatuak klase partikularrak ematen ditu LH eta DBH mailakoentzat. Tel. 651-503971.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Mutikoarentzako bizikleta salgai (3tik 8 urtera). Berria. Urdina. Tel. 617-256466.

– Lehen jaunartzerako marinel trajera salgai. 14 tallakoa, krema kolorekoa. Prezio onean. Tel. 630-686469.

Zuk uste baino hurbilago, nahi bezain urrun hel daitezten.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

EUSKO INTZULARITZA



GOBIERNO VASCO

Aurrematrikulak


HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN



ITZIO D.B.H.


943 70 22 89

**Nahi bezain
URRUN HELTZEKO.**
Heziketa ZIENTIFIKOA.
Heziketa MODERNOA.
GIZA heziketa.
**HIRU HIZKUNTZAKO
heziketa.**



MOGEL ISASI D.B.H.

943 20 30 94




AMAÑA

943 20 72 50

Urtarrilaren 28tik
Otsailaren 8ra

2013
2014
IKASTURTEA




ARRATEKO ANDRA MARIA

943 20 72 35




J.A. MOGEL IKASTOLA

943 20 84 87



SAN ANDRES

943 20 79 95



URKIZU

943 12 17 78

ZERBITZUA

ADMINISTRAZIOA

BILERAK

GESTIOA

EUKi

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK

5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30

ZEZEN BIDE



AUTO ESKOLA

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR